

# gutunzuria

Bilboko Letren Nazioarteko VII. Jaialdia

## Mugako kontakizunak


LYDIA CACHO  
SERGIO GONZÁLEZ  
JUAN GOYTISOLO  
CLAUDIO MAGRIS  
HERTA MÜLLER  
ORHAN PAMUK  
TXOMIN PEILLEN  
RAMÓN SAIZARBITORIA  
MIKEL URDANGARIN  
KIRMEN URIBE  
GAO XINGJIAN

martxoa 27 > 30 | apirila 3 > 6

Alhóndiga  
Bilbao

Kultura Bizi  
Den Tokia

[www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)



BABESLEA NAGUSIA

bbk<sup>2</sup>

ENTITATE  
KULTURALAK



INSTITUT  
FRANÇAIS



KOLABORATZAILEAK



[www.fnac.es](http://www.fnac.es)



metro  
bilbao

ALSA



Bodega Urbana

KOMUNIKAZIO LANKIDEAK

EL CORREO<sup>2</sup>





# MUGAKO KONTAKIZUNAK

Alhóndiga Bilboak, martxoaren 27tik 30era eta apirilaren 3tik 6ra bitartean, zazpigarren aldiz antolatuko du Gutun Zuria, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia. Oraingoan, literatur solasaldien gai nagusia 'Mugako kontakizunak' izango da. Kontzeptu hori, muga, oso zehatza da eta, aldi berean, oso zabala. Globalizazioak mugarik gabeko mundu baterantz garamatzala badirudi ere, egia esan, lerro banatzaileek beren horretan jarraitzen dute oraindik ere. Lerro horiek, batzuetan,

larritasunez eta indarkeriaz bizitzen dira; beste batzuetan, identitatearen baieztapen gisa, bere baitan itxiz edo beste aldean dagoenari buruz ikaste-ko irekiz. Muga kontzeptuak badu ageriko zentzu fisiko eta humanoa, Mexikoren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko mugan bezala, edo Afrikaren eta Europaren artekoan bezala. Esanahi sozial eta individuala ere hartzen du, eta hori agerian geratzen da talde eta estamentuen arteko bereizketan edo mundua ikusteko modu

desberdinak dituzten pertsonen artekoetan. Azkenik, muga artean ere agertzen da, ia artearen sorreratik, bai eta sorkuntza-diziplinen eta generoen sailkapenetik eta bereizketatik ere. Tragedia ez da komedia, ez eta musika poesia ere, nahasketak gero eta ekimen handiagoz egiten diren arren.

**Hiru Nobel saridun Gutun Zurian** Urtero bezala, Gutun Zuriak idazketa garaikidearen ordezkari nagusiak biltzen ditu Bilbon. Zazpigarren edizio honetan, Literaturako hiru Nobel saridun

elkartuko dira Alhóndiga Bilboan: Gao Xingjian (2000), Orhan Pamuk (2006) eta Herta Müller (2009), hain zuzen ere. Hirurek euren ikuspegiak emango dituzte aditzera. Beraiek, Euskal Herriko nahiz nazioarteko beste idazle batzuekin batera, erregimen totalitarioen kartzela fisiko eta buru barrukoez hitz egingo digute, bai eta biztanleria-mugimenduez ere, Europan herrialdeen mugak zeharka-tzen dituzten ibaez. Zenbait gonbidatuk, hala nola, Lydia Cacho eta Sergio González Rodríguez, Mexikoko mugetan emakumeen aurkako indarkeria nola bizi izan duten kontakutako dute, eta Juan Goytisolo, bestalde, erlijioen arteko gatazkek eta kulturen arteko talkez arituko da. Euren esperientziak pertsona desberdinen arteko komunikazio-bideak eta elkarren arteko aberastasun-bideak imajinatzeke balioko du.

**Literatura, arlo guztietatik** Esperimentazio artistiko hutsa, beste edizio batzuetan bezala, Gutun Zuria jaialdiaren edizio honetan ere egongo da presente; izan ere, jaialdi honek adi jarraitzen ditu gaurkotasunezko eztabaidak, bai eta hitza beste arte batzuekin (esate baterako, musikarekin eta dantzarekin) harmonizatzen duten sorkuntza-motak ere. Jaialdia martxoaren 27an abiatuko da, Matxalen Bilboaren 'Sats!' ikuskizunarekin. Halaber, errezitaldi poetikoa ere izango dugu, Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabalen eskutik: hain zuzen ere, 'Jaingo txiki eta jostalari hura' aurkeztuko dute.

Zinearen atalean, Gao Xingjianen 'Le deuil de la beauté' azken lanaren proiektzioa nabarmendu behar da. Eta apirila literaturaren eta liburuaren hila denez, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna (apirilak 2) TPO konpainiaren 'Babayaga' lanarekin ospatuko dugu; eta Liburuaren Nazioarteko Eguna, berriz, Bilboko Koral Elkarte Kontserbatorioko Abesbatzaren kontzertu berezi batekin.

## SOLASEAN / MARTXOAREN 27tik 30era GUTUNZURIA 2014

> **HERTA MÜLLER**  
Cecilia Dreymlüllerrekin solasean

Martxoak 27, osteguna 20:00etan



Herta Müller nobelagile, poeta eta saiakera-egile errumaniar-alemaniarra, 2009an Literaturako Nobel Saria irabazitakoa, Ceauscescuren diktaduraren garaian Errumanian zeuden bizi-baldintzei buruz aritzen da bere lanetan. Müller Timisoaran (Errumania) jaio zen, Danubioko suabiarren gutxiengo alemaniarreko familia batean. Erregimen komunistak haren aitona baserritarra desjabetu zuen. Aita Waffen-SS delakoetan aritu zen, eta ama Sobietar Batasunera deportatu zuten 1945ean. Esperientzia gogor horren ondorioz, etxean ez zuten iraganari buruz hitz egiten, eta tabuz eta isiltasunez inguratuta bizi ziren.

2009ko NOBEL SARIDUNA

> **LYDIA CACHO**  
Lucía Martínez Odrizolarekin solasean

Martxoak 28, ostirala, 19:30ean



Lydia Cacho mexikarrak Ciudad Juárezeko emakumeen hilketen gaineko zuzeneko lekukoza emango du. Mugaldekoko hiri hartan, ehunka emakume hil dituzte edo desagertu dira. Kazetari eta idazle mexikar honen lanek inpaktu handia izan dute gizartean, eta hainbat sari jaso ditu. Giza eskubideen aldeko aktibista entzutetsua da, eta Genero Ikuspegia duten Kazetarien Nazioarteko Sareko kidea da. Milaka pertsona inspiratu ditu, bere herrialdeko neska-mutikoak babesteko erakunde zibilak sortzerakoan eta legeak eraldatzerakoan.

> **KIRMEN URIBE ETA MIKEL URDANGARIN**  
Iñaki Mendizabalekin solasean

Martxoak 29, larunbata, 20:00etan



Kirmen Uribe, gaztea izanik ere, euskarazko egilerik irakurri eta itzulienetakoa da. 'Bilbao-New York-Bilbao' (Elkar, Seix Barral) beraren lehen eleberririk Espainiako Narratiba Saria jaso zuen, eta oihartzun handia izan zuen, hamalau hizkuntzataraz itzuli baita. Mikel Urdangarin kantautorea, Kirmen Uribe deskribatzen duen moduan, folk-rockaren aldeko apustua egin duen euskal bakarlari urrietako bat da. 'Zubia', 'Mikel Urdangarin Zuzenean' eta, berrikiago, 'Azula', dira haren lanetako batzuk.



New Yorkera 2003. urtean egindako bidaia batek Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal eta Mikel Valverde elkartu zituen, eta horren emaitza 'Zaharregia, txikiegia agian' CD-liburua izan zen, kantaz eta poema erreztatuz osatua, poesia publiko zabalagoarengana hurbiltzeko eran. Topaketaren ostean, 'Jaingo txiki eta jostalari hura' errezitaldi poetikoa eskainiko dute, hori baita batera egin duten azken lana.

> **TXOMIN PEILLEN**  
Arantxa Iturberekin solasean

Martxoak 29, larunbata 18:30ean



Ospe handiko idazle eta euskararen ikertzailea da Txomin Peillen, eta bere bizitzaren zati handi bat euskal literaturak kulturari egindako ekarpena ikertzen eman du, Parisko euskal komunitatean jaiotakoaren ikuspegitik. Katedratiko emeritua da Baionan, Euskaltzaindiko kidea eta Euskal Ikasketetan doktoratua; gainera, ekoizpen literario garrantzitsua dauka, 50 liburu baino gehiago idatzi baititu (ikerketak, liburak, eleberrak, ipuinak, poemak eta antzezlanak); era berean, 189 ikerketa-artikulu eta kazetaritzako 240 artikulua baino gehiago idatzi ditu.

> **CLAUDIO MAGRIS**  
Marisa Blancorekin solasean

Martxoak 30, igandea 19:30ean



Claudio Magris, 2004ko Letren Asturiasko Printzea Saria irabazitakoa, Italiako literatura garaikidearen ordezkari nagusietakoa da. Argitaraturiko lanen artean honako hauek dauzka: 'Lejos de donde. Joseph Roth y la tradición hebreo-oriental' (Eunsa, 2004); 'Danubio' (Anagrama, 1997); 'Microcosmos' (Anagrama, 2006); 'A ciegas' (Anagrama, 2006); 'Alfabetos' (Anagrama, 2010) eta 'Livelli di guardia' (Garzanti, Milan 2011). Erasmus Prize eta Leipzig Book Award sariak jaso zituen 2001ean, eta Madrilgo Arte Ederren urrezko domina, berriz, 2003an.

2004ko PRINCIPE DE ASTURIAS SARIA

## SOLASEAN / APIRILAREN 3tik 6ra GUTUNZURIA 2014

> **SERGIO GONZÁLEZ RODRÍGUEZ**  
Jon Sistiagarekin solasean


Apirilak 3, osteguna 19:00etan



Sergio González Rodríguez mexikar idazleak azalpenen bila dihardu buru-belarri, eta toki hartan etengabe egiten diren hilketen aurkako borrokan. Iberoamerikako eragin handieneko 50 intelektualeen artean kokatu zuen Foreign Policy/España aldizkariak, eta, haren lanen artean, 'Huesos en el desierto' nabarmetzen da, indarkeriari, narkotrafikoari eta Ciudad Juárezeko emakumeen hilketak sistematikoei buruzko erreportaje/kronika/saiakera.

> **RAMÓN SAIZARBITORIA**  
Arantxa Urretabizkaiarekin solasean

Apirilak 4, ostirala, 19:30ean



Ramon Saizarbitoria euskarazko literaturaren berritzaile handietako bat da. Euskaraz idatzitako eleberririk onenetako batzuen egilea da, lehenengotik ('Egunero hasten delako') azkenera arte ('Martutene'). Hain zuzen ere, azken obra horrekin, egileak Euskadi Literatura Saria lortu du 2013an, euskarazko narratiba arloko Kritikaren Saria 2012an, 111 Akademiaren 2012ko saria, eta finalista izan da 2013ko Espainiako Narratiba Sarian.

> **JUAN GOYTISOLO**  
Iñaki Estebanekin solasean

Apirilak 6, igandea, 19:30ean



Juan Goytisolo eleberrigileak obra oparo eta zabala dauka narrazioaren zein saiakeraren arloan, eta, 1963tik, zentsura frankistak debekatuta izan zituen bere liburak. Bere lehenengo eleberrietan (50eko hamarkadan idatzitakoak), burgesiaren aurkako pentsamendua nagusitzen da. Erbestearen gaiari heldu zion 'Juan sin tierra' (1975) lanean, eta Espainiako kultura eta historiaren alderdi batzuekiko haustura ageri da bertan. Magrebez eta arabiar zibilizazioaz duen interesa zenbait saiakeratan agertzen da; esate baterako, 'El problema del Sahara' (1979) obran.

> **GAO XINGJIAN**  
Ion de la Rivarekin solasean

Jueves, 3 de abril 20:30ean



Gao Xingjian, 2000. urteko Literaturaren Nobel sariduna, Txinako ekialdekoa da jatorriz, eta Frantziako herritarra. Gao Xingjian hitz lauzko idazlea, itzultzailea, antzerkigilea, zuzendaria, kritikaria eta artista da, eta japoniarren inbasioaren ondoko urteetan hazi zen. 1987. urtean Txinatik irten, eta Parisen jarri zen bizitzen handik urtebetera, errefuxiatu politik gisa. Idazletzaren esparruan duen esperientziak hitz egiteaz gain, Gutun Zuria jaialdian zine-zuzendari gisa egin duen lanari buruz ere mintzatuko da; hain zuzen ere, 'Le deuil de la beauté' filmarekin estreinatuta da zeregin horretan.

2000ko NOBEL SARIDUNA

> **ORHAN PAMUK**  
Ana Aizpirirekin solasean

Apirilak 5, larunbata, 19:30ean



Orhan Pamuk 2006ko Literaturako Nobel sariduna da. Bere eleberrien artean, 'Me llamo Rojo' (Alfaguara, 2003) nabarmendu daiteke (Atzerriko Libururik Onenaren saria Frantziako Grinzane Cavour Saria Italian, eta IMPAC Nazioarteko Saria Irlandan). 2005ean, liburu-saltzaile alemanen Bakearen Saria jaso zuen. 'Elurra' (Elkar, 2007) izeneko bere eleberririk Prix Médicis Étranger saria jaso zuen, eta Turkiako prentsa nazionalistaren erasoaren jomuga nagusia izan zen. Bere liburua berrogei hizkuntzara baino gehiagora itzuli da.

2006ko NOBEL SARIDUNA





› **CECILIA DREYMÜLLER** Herta Müllerekin solasean  
Saiakera-egilea eta literatur kritikaria



Cecilia Dreymüller doktorea da Espainiar Filologian, Koloniako Unibertsitatetik. Halaber, saiakera-egilea eta literatur kritikaria ere bada zenbait komunikabidetan, besteak beste, Babelia, El País, Süddeutsche Zeitung eta Alemaniako Irrati Nazionalen. Alemaniera eta gaztelaniera itzultzailea da, bai eta Bartzelonako Goethe Institutetako irakaslea eta Alemania eta Espainiaren arteko kultur bitartekaria ere, orain dela ia 30 urtetik.

Hemendik gutxira bere azken lana argitaratuko da: 'Confluencias. Antología de la mejor narrativa alemana actual' (Bartzelona, Alpha Decay).

› **ARANTXA ITURBE** Txomin Pellienekin solasean  
Kazetaria eta idazlea



Arantxa Iturbek Informazio Zientziak ikasi zituen Nafarroako Unibertsitatean, ikasketa horiek idazle izateko onuragarriak izango zitzaizkiola. Irratian bi bide horiek urratzeko toki egokia aurkitu zuen.

Gaur egun hainbat albistegi kultural zuzentzen ditu Euskadi Irratian.

› **Mª LUISA BLANCO** Claudio Magrisekin solasean  
Gutun Zuria 2014 jaialdiaren zuzendaria



Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionaleko argitalpen-zuzendaria. Mª Luisa Blancok duela 30 urtetik hona dihardu kazetaritza kulturalean. Denbora horretan, El Paíseko Babelia eta Diario ABCren ABC Cultural kultur gehigarrietako zuzendaria izan da, bai eta Cambio 16ko zuzendariordea ere.

'Conversaciones con Antonio Lobo Antunes' (Siruela) liburuaren egilea da.

› **ION DE LA RIVA** Gao Xingjianeekin solasean  
Enpresa eta kultur arloan Indiarekin lankidetzan aritzeko aholkularia



Ion de la Riva Guzmán de Frutos Nazioarteko eta Iberoamerikako Lankidetzarako Estatuko Idazkaritzaren zuzendari nagusia izan da, bai eta Espainiaren ezohiko enbaxadorea ere Indiako Errepublikan, Maldivetan, Sri Lankan eta Nepalen. Bestetik, Espainiaren enbaxadore ordezkarri iraunkorra izan da UNESCOn.

India Europa Fundazioa (FIND) zuzendu du, eta enpresa eta kultur arloan Indiarekin lankidetzan aritzeko aholkularia da, bai eta Eusko Jauritaritzako Kontseilu Globaleko kidea ere.

› **ANA AIZPIRI** Orhan Pamukekin solasean  
Kazetaria



Ana Aizpiri kazetaria da, eta arabiar herrialde islamikoetan dago espezializatuta. EITBren Nazioarteko Informazioaren atalean lan egiten du, eta idatzizko prentsan kolaboratzen du. 'Hora GMT' nazioarteko informazioari buruzko saioa zuzendu du ETB2n.

Arabieratik gaztelaniarako itzulpenetan espezialista da, Toledoko Itzultzaileen Eskolatik.

› **LUCÍA MARTÍNEZ ODRIÓZOLA** Lydia Cachorekin solasean  
Euskal Kazetarien Elkarteko presidentea



Lucía Martínez Odriozola EHU'n lizentziatu zen 1983an, eta EHU-EI Correo masterra eskuratu zuen 1991n; Kazetaritza II Saileko irakaslea da UPV/EHU'n.

El Correo, Cadena SER, Euskadi Irratia eta Radio Euskadi komunikabideetan lan egin du. Carmen Goes kazetaritza-saria eman zioten 2008. urtean. 'Pikara magazine' aldizkariaren fundatzaile eta editoreetako bat da. 2006ko ekainaz geroztik, Euskal Kazetarien Elkarteko presidentea da.

› **IÑAKI MENDIZABAL** Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinekin solasean  
Gutun Zuria jaialdiaren aholkularia



Iñaki Mendizabal kazetaria Noticias Taldeko 'Ortzadar' gehigarriaren arduraduna da.

Euskal Herriko piratei buruzko hiru liburu idatzi ditu, haietako bi didaktikoak: 'Euskal Piratak', 'Baleazaleak eta kortsarioak' eta 'Pelot eta Enperadorearen bahiketaren' eleberria.

› **JON SISTIAGA** Sergio González Rodriguezekin solasean  
Kazetaria



Jon Sistiaga (Irun, 1967) kazetaria da. Gaur egun 'Reportajes Canal Plus' espazioa zuzentzen du. Telecinco, Cuatro, El País eta Cadena Ser hedabideetan lan egin izan du. Jon Sistiaga ikerketan eta gatazketan espezializatutako erreportaria da. Afganistan, Kosovo, Somalia, Ipar Korea, Irak, Kolonbia, Aljeria eta Ipar Irlandan lan egin du.

› **ARANTXA URRETABIZKAIA** Ramón Saizarbitoriarekin solasean  
Kazetaria eta idazlea



Arantxa Urretabizkaia hainbat hedabidetan lan egin du azken hogeita hamar urteetan, hala nola, Egin, Deia, Diario Vasco, El Mundo, Euskal Telebista, Euskadi Irratia eta Radio Euskadin. Idazle gisa, poesia, ipuinak eta eleberriak argitaratu ditu. Bere azken eleberria '3 Mariak' (2010) da. Euskaltzaindiko kidea da.

› **IÑAKI ESTEBAN** Juan Goytisolorekin solasean  
Gutun Zuria jaialdiaren aholkularia



Iñaki Esteban 'El efecto Guggenheim' lanaren eta 'Libertad y sentido en las sociedades democráticas' Miguel de Unamuno Saiakera saridunaren egilea da.

Era berean, zenbait lan egin ditu beste egile batzuekin batera. Kazetaritzako irakaslea da, eta El Correo egunkarian lan egin du; kolaboratzailea da kultura-erakunde horien bazkide diren saltokietan, Gutun Zuria jaialdiaren edizio honetan bisitatuko gaituzten egileen ekoizpen literarioa aurkitu ahal izango da.

# AGENDA

## OSTEGUNA, MARTXOAK 27

19:30  
Gutun Zuriaren inaugurazioa,  
Matxalen Bilbaoren 'Sasti'  
ikuskitunarekin  
20:00  
Solasean:  
Herta Müller, Cecilia Dreymüllerekin\*  
21:30  
Irakurlearen ordua:  
Topaketa Herta Müllerekin\*\*

## OSTIRALA, MARTXOAK 28

19:30  
Solasean:  
Lydia Cacho, Lucía Martínez  
Odriozolarekin\*  
21:00  
Irakurlearen ordua:  
Topaketa Lydia Cachorekin\*\*

## LARUNBATA, MARTXOAK 29

18:30  
Solasean:  
Txomin Peillen, Arantxa Iturberekin\*  
20:00  
Solasean:  
Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarin,  
Iñaki Mendizabalekin\*

21:00  
Aurkezpena:  
Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin,  
Rafa Rueda eta Bingen Mendizabalen  
errezitaldi poetikoa\*  
21:30  
Irakurlearen ordua:  
Topaketa Txomin Peillen, Kirmen  
Uribe eta Mikel Urdangarin

## IGANDEA, MARTXOAK 30

19:30  
Solasean:  
Claudio Magris, Marisa Blancorekin\*  
21:00  
Irakurlearen ordua:  
Topaketa Claudio Magrisekin\*\*

## ASTEAZKENA, APIRILAK 2

11:00  
Kartzelatik: Sergio González  
Rodriguezen topaketa Basauriko  
espetxeko presoekin  
18:00  
Haurrentzako antzerkia, TPO  
konpainiarekin 'Babayaga'\*\*\*  
Haur eta Gazte Liburuaren  
Nazioarteko Eguna

20:00  
Zinea: 'LE DEUIL DE LA BEAUTÉ'  
Gao Xingjian 120' JB (azpittulurik  
gabe)\*\*\*\*

## OSTEGUNA, APIRILAK 3

12:00  
Liburu-sinadura:  
Gao Xingjian FNACen  
17:30  
Zinea: 'LE DEUIL DE LA BEAUTÉ'  
Gao Xingjian 120' JB (azpittulurik  
gabe)\*\*\*\*  
19:00  
Solasean:  
Sergio González Rodríguez, Jon  
Sistiagarekin\*  
20:30  
Solasean:  
Gao Xingjian, Ion de la Rivarekin\*  
21:30  
Irakurlearen ordua:  
Topaketa Sergio González  
Rodriguezekin eta Gao Xingjianeekin\*\*

## OSTIRALA, APIRILAK 4

19:30  
Solasean:  
Ramon Saizarbitoria, Arantxa  
Urretabizkairekin\*  
21:00  
Irakurlearen ordua:  
Topaketa Ramon Saizarbitoriarekin \*\*

## LARUNBATA, APIRILAK 5

19:30  
Solasean:  
Orhan Pamuk, Ana Aizpirirekin\*  
21:00  
Irakurlearen ordua:  
Topaketa Orhan Pamukekin\*\*

## IGANDEA, APIRILAK 6

19:30  
Solasean:  
Juan Goytisolo, Iñaki Estebanekin\*  
21:00  
Irakurlearen ordua:  
Topaketa Juan Goytisolorekin

## ASTEAZKENA, APIRILAK 23

19:30  
Bilboko Koral Elkarteko  
Kontserbatorioko Abesbatzaren  
kontzertua\*



\*Auditoriuma. -1 solairua  
3€/↙2€ AlhóndigaBilbao txartelarekin  
\*\*Auditoriumeko halla. -1 solairua  
Sarrera hitzaldira doazen pertsonentzat soilik.  
\*\*\*Auditoriuma. -1 solairua. Umeak 6€/↙4€  
Helduak 8€/↙5€  
\*\*\*\* Golem Alhóndiga zinemak 4,5€/↙3,5€

Sarrerak Infopuntuan (informazio gunea) eta [www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com) webgunean daude salgai. Hitzaldi gutziek aldibereko itzulpena izango dute. Ezin baduzu etorri, jarrai gaitzazu zuzenean livestream bidez. Auditoriuma beteta badago, solasaldiak -2 solairuko Bastida Aretoan jarraitu ahal izango dituzu (plaza-kopurua bete arte). 2€ /↙1€

## MEDIATEKA BBK, ATARIAN

Jaialdiak irauten duen bitartean, Mediateka BBK Kulturaren Atarira jaitsiko da, gonbidatutako idazleen lanak jende guztiari helarazteko.

Atrioan azpian instalatutako areto atseginean hizlarien ekoizpen literarioa kontsulta daiteke, eta jaialdiko egun bakoitzeko jardueren berri izan.

## GUTUN ZURIA, BIZKAIKO LIBURU-DENDETAN

Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiak Bizkaiko Liburu-denden Elkartearen eta Euskadiko Liburu Ganberaren babesia dauka. Egunotan, erakunde horien bazkide diren saltokietan, Gutun Zuria jaialdiaren edizio honetan bisitatuko gaituzten egileen ekoizpen literarioa aurkitu ahal izango da.

## BIBLIOGRAFIA SHOPAN

Shopak, AlhóndigaBilbaoko dendak, liburu-denda instalatuko du arratsaldero Auditoriumeko hallean, Jaialdiko gonbidatutako egileen liburuekin.

AlhóndigaBilbao txartela erakusten dutenek %5eko deskontua izango dute argitalpen horiek erosterakoan.

## IRAKURLEAREN ORDUA

Haien lanen, bizitzaren edo ideien inguruko iritziak eta gogoetak partekatzea, zure libururik gogokoaren eskaintza lortzea... Gutun Zuria jaialdiko irakurlearen ordua klasiko da jada ekimenaren barruan. Idazleak eta irakurleak elkarrekin aurrez aurre egoteko unea da. Elkarrizketa bakoitzaren ondoren, Auditoriumeko hallean giro paregabea sortzen da hizketan aritzeko, Bodega Urbanak berariaz ekitaldi honetarako prestatutako ardo batez gozatu bitartean. Monastrell eta Cabernet Sauvignon mahatsekin egindako ardoa da, bi kulturaren eta bi ardo-motaren arteko fusioa erakusten duena: Caberneten lurrina, nerbioa eta izaera, eta Monastrellen gozotasuna eta ahoan uzten duen zapora luzea.

› **HERTA MÜLLER**  
Martxoak 27, osteguna, 21:30ean

› **LYDIA CACHO**  
Martxoak 28, ostirala, 21:00etan

› **TXOMIN PEILLEN, KIRMEN URIBE ETA MIKEL URDANGARIN**  
Martxoak 29, larunbata, 21:30ean

› **CLAUDIO MAGRIS**  
Martxoak 30, igandea, 21:00etan

› **SERGIO GONZÁLEZ RODRÍGUEZ ETA GAO XINGJIAN**  
Apirilak 3, osteguna, 21:30ean

› **RAMÓN SAIZARBITORIA**  
Apirilak 4, ostirala, 21:00etan

› **ORHAN PAMUK**  
Apirilak 5, larunbata, 21:00etan

› **JUAN GOYTISOLO**  
Apirilak 6, igandea, 21:00etan

Auditoriumeko halla. -1 solairua. Sarrera hitzaldira doazen pertsonentzat soilik.

## DANTZA

### 'SAST!' MATXALEN BILBAOREN KOREOGRAFIA

Martxoak 27, osteguna, 19:30ean  
Auditoriuma. -1 solairua

Matxalen Bilbaok Gutun Zuriaren zazpigarren edizioa inauguratuko du, 'Sast!' izeneko bere piezaren pasarte bat eszenaratuz. Koreografo bikaitarrak dantzaren egiturak arakutzen ditu, eta mugimenduaren bitartez eraikitzen du bere diskurtsoa. Gorputza entitate konplexu gisa ulertzen du, etengabeko eraldaketa-prozesuan eta barruko zein kanpoko espazioen arteko elkarrizketan dagoen eremu gisa; eta barne-bulkada horrek kalitatea eta emozioa dakarzkio.

Hamar piezak bermatzen dute egilearen ibilbidea; horietatik, 'Self' (2013), 'Sast!' (2009), 'Haiku4' (2007), 'Capricho' (2005), 'Lotura' (2004) eta 'Mutis' (2003) nabarmendu behar dira.



## HAURRENTZAKO ANTZERKIA

### 'BABAYAGA' TPO KONPAINIA

Apirilak 2, asteazkena, 18:00etan  
Auditoriuma. -1 solairua



egilearen unibertso bisuarean inspiratuta, haren gorri oparoko figuretan, haren trazu landu eta erakarriarrian. Bi dantzarik, bi tximeletaren arintasunarekin, hitzik gabeko ipuinean barrena gidatzen dituzte ikusleak. Ipuina paisaia zirraragarritz eta eszena-efektu oparoko musikajokoz osatuta dago, sentsoreak eta teknologia interaktiboa zuhurki eta era ikusezinean erabiliz.

Dantzariek eszenan 'margotzen' dute edo musika gorputzarekin edo mugimenduarekin 'jotzen' dute, efektu interaktiboekin esker; era berean, haurrei espazioarekin zuzenean harremanetan jartzeko gonbita egiten diete, gorputza eta begirada erabiltzeko lehentasuna ematen dion ikuspegi teatraletik esploratzen lagunduta.

Italiako TPO konpainiak 'Babayaga' errusiar ipuin ezaguna eszenaratu du era garaikidean, dantza eta jatorrizko musikak erabiliz, bai eta, eszena osoan eta formatu handian, Rébecca Dautremereen ilustrazio bikainak proiektatuz ere.

Ikuskizunak irudimenezko bidaia proposatzen du aipatutako

Umeak 6€ / 4€<sup>1/2</sup> Helduak 8€ / 5€<sup>1/2</sup>

## MUSIKA

### 'JAINKO TXIKI ETA JOSTALARI HURA'

Martxoak 29, larunbata, 21:00etan  
Auditoriuma. -1 solairua



Mendizabal musikariek errezitaldia emango dute 'Jainko txiki eta jostalari hura' beren azken disko-liburuko kantekin. Lanak Kirmen Uriberen poesia musikarekin eta irudiekin uztartzen du. Zuzeneko multimedia-ikuskitza da, eta kantak eta poemak irakurketak bateratzen dira bertan, musikan eta proiektioetan oinarrituta. Agertoki gainean, hiru musikariek eta idazleak gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa, mandolina, zazpi hariako biolina, teklatura eta perkusioak jotzen dituzte, ahotsaz eta deklamazioez gain.

Kirmen Uribe idazleak, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen

3€ / 2€<sup>1/2</sup>

## BILBOKO KORAL ELKARTEKO KONTSERBATORIOKO ABESBATZAREN KONTZERTUA

Apirilak 23, asteazkena, 19:30ean  
Auditoriuma. -1 solairua

3€ / 2€<sup>1/2</sup>

AlhóndigaBilbaok Bilboko Korral Elkarteko Kontserbatorioko Abesbatzaren kontzertu batekin ospatuko du Liburuaren Nazioarteko Eguna. José Luis Ormazabal arituko da zuzendari lanetan, eta M<sup>a</sup> Camelia Calvok joko du pianoa. Errepertorioa bat etorriko da Gutun Zuria jaialdiaren gai nagusiarekin, eta mugarik gabeko bidaia sinbolizatuko du, hesirik ez duten harmoniazko zubiak zeharkatuz; izan ere, zubi horiek pertsonak hurbilazteko eta elkartzeko balio dute.

## ZINEA

### 'LE DEUIL DE LA BEAUTÉ'

GAO XINGJIAN

120' JB azpitolurik gabe

Apirilak 2, asteazkena, 20:00etan

Apirilak 3, osteguna, 17:30ean

Golem Alhóndiga zinemak 4,5€ / 3,5€<sup>1/2</sup>



Gao Xingjianek 'Le deuil de la Beauté' bere filma aurkeztuko du AlhóndigaBilbaon; 'zine-poema' esperimental eta ez-komertziala da, eta ez du fikziorik, ez intrigarik, ez eta ia elkarrizketarik ere. Bi orduko film honetan, Gao Xingjianek gure gizartearen gaineko kritika sakona egiten du, eta edertasuna desagertu egin dela salatzen du. Zinea erabateko arte gisa hartzen du, eta, bertan, adierazpen artistiko guztiak sartzen dira. Film honetan, artistei benetako sormenera bueltatzeko deia egiten die. Artea ezin da modaren, politikaren edo merkatuaren menpe egon, eta film hau berpizkunde berrirako deia da, edertasunaren zentzura eta zentzu estetikora itzultzeko deia. Edertasuneranzko itzulera hunkigarria da.